

ETXEKO LANDAREAK

Gidoia

202 hitz

Etxe gehienetan egoten dira landareak. Beren edertasunaz etxea alaitzen dute. Baina horretarako ondo zaindu behar dira.

Hortaz, landareak benetan eder eduki nahi badituzu, kontuan izan honako aholku hauek:



1.- Landareek daukaten lurrari erreparatu beharko diozu aurren-aurrena: izan dezatela lur egokia, gozoa, ongarritua... Izan dadila lur harroa, ureztatzerakoan ura gogo onez hartuko duena, uraren iragaztea galarazi gabe.



2.- Landareek beren toki berezia dute. Kanpoan eduki beharreko landarea ez ezazu etxe barruan gorde. Eta ez utzi kanpoan etxe barrurako egina dagoen landarea. Leku argitsua eta epela behar du landare mota honek.



3.- Urezta itzazu sarri samar, baina inoiz ez bota ur asko aldiko. Sarri baina tamainan, putzurik egin gabe, urak ez dezala gainezka egin.

4.- Kanpoan euri gozoa ari duenean, atera itzazu eta jarri euripean. Zerutik datorren ura da gozoena landareentzat.

5.- Hosto zimelak kendu, hosto berriei ez baitiete hazten eta arnasa behar bezala hartzen uzten.



6.- Oporrak direla eta landareak denboraldi luzez etxean utzi beharrean bazaude, egin ezazu landareek argia, aire garbia eta ura edukitzeko modua.

7.- Agian harritu egingo zara, baina gogoan hartu hau ere: jar iezaiezu musika goxoa, klasikoa nahiz modernoa, baina melodikoa beti.

8.- Eta azkena: saia zaitetzte landareak etxeko guztion artean zaintzen. Ez dezala lagun bakarrak hartu landareak zaintzeko ardura.



3 Irakurgaiak liburutik hartuta